

Balorezko proposamena

Gure proiektu honek, jendartearen diruarekiko duen menpekotasuna gutxitzea du helburu. Monetarismoa alde batera utzi eta trukean oinarritzen den gizarte bat eraikitzea da gure nahia. Hots, gure balore, zaletasun edo gaitasunen araberako zerbitzu bat eskaintzearen truke, guk nahi dugun ondasun edo zerbitzu hori lortzea; beti ere trukea oinarritzat hartuta. Ez du balore monetariorik edukiko, hau da, ez da diruan oinarritutako zerbitzu bat izango. Horrela, erakustearen truke, ezaugarri berriak eskuratzea eta gure jakituria aberastea.